

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Rekondo Iribar

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1927-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Aiako Aristerrazu baserrian jaio zen, baina lau urte besterik ez zituela Urnietara etorri ziren bizitzera.

Aristerrazun maizter ziren eta Urnietako Oianume baserrira etorri ziren hiru familia.

Baserriko lanetan aritzeko tresneria izugarri aurreratua zuela gogoratzen du baserri hartatik, eta 19 lagun bizitu zirela bertan ere bai. Sei urterekin Urnietako eskola munizipalean hasi zen eta 14 urte zituen arte bertan ikasi zuen. 16 urterekin herriko Kaxeta etxean josten ikasten ibili zen eta garaiko janzkerak begi aurrean balitu bezala kontatzen ditu berezitasun guztiekin. 1947an ezkondu zen Urkainberri baserrira.

Zintak

URN-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2009-12-23
- **Iraupena:** 98 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Oianume, berrikuntza guztiak zituen baserria

- **Erref:** URN-009/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Familia handia ziren. Lau urterekin Oianumera (berak "Oialume" esaten du) etorri zen bizitzera, Urnietara. Baserri handia zen, aurrerapen klase guztiak zituena. Makinak artoa aletzeko, erremolatxa xehatzeko, sagarra txikitzeko eta abar. Hiru silo zituen baserriak, Gipuzkoako silo bakarrak ei ziren.</p>

2. Aiatik Urnietara, maizter izatetik etxejabe izatera

- **Erref:** URN-009/003
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aristerrazun maizterrak ziren eta beren baserria izateko gogoaz zuten. Zenbait familia-arrazoi tarteko, Urnietara aldatzea erabaki zuten. 19 laguneko familia zen.

3. Aristerrazuko oroitzapenak

- **Erref:** URN-009/005
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lau urterekin etorri zen Aristerrazutik. Hain txikia izan arren, gogoan du nola amak apaizari meza ondoren ateratzen zion txokolatea esponjarekin (boladua). Eta baita nola amak mahai gainean tente jarrita jantzi zuen Urnietara etortzeko. Nolako maleta ekarri zuten ere bai.

4. Maite zuen Urnietako amona

- **Erref:** URN-009/006
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:11:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Maritxuk ezin zuen Urnietan etsi Aiako amonarik gabe. Urnietako amona fundamentu gutxikotzat omen zeukaten baina orain pentsatzen jarrita iruditzen zaio aitona gaizki tratatzen zuela. Oso zakarra omen zuen aitona. Berak maite zuen amona.

5. Muxu eman nahi ez aitona Patxiori

- **Erref:** URN-009/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:11:19. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gogoan du beste familia etxetik irten zen eguna. Zein koadro tristea: ezin utzi etxea! Sorabillara joan ziren bizitzera; eta, handik gutxira, aitona eta amona gaixotu egin ziren. Bisitara joan eta ez zion muxu eman nahi izan aitonari, ez zuela maite esanez. Kontu handia izan behar omen da umeen aurrean hitz egiterakoan, umeei dena barruan geratzen zaielako. "Hasi da gure katu txuria negarrez" esaten omen zuen aitonak.

6. Hemeretzi laguneko familia

- **Erref:** URN-009/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Oso libre egiten zen hitz beren etxean. Txandaka egiten zituzten jatorduak, hemeretzi laguneko familia zen eta. Ez zuten sekula goserik pasatu. Gaur egun behar ez den makina bat gauza kontsumitzen da.

7. Familia-giroa galdu da gaur egun

- **Erref:** URN-009/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Edozein etxera etortzen zela, leku bat izaten zuen mahaian. Gaur egun familiatasuna galdu egin omen da, elkarri konprenitzen ezin omen dugu ikasi. Familia-giro hobea balego, ez legoke hainbeste zaharretxeren beharrik. Amona, ama bezain beharrezkoa omen zuen, eta osaba eta izeba aita eta ama beste.

8. Amonaren amantalak zenbat biltzen zuen familia

- **Erref:** URN-009/010
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Birraitona serioa zen, baina haren alaba, Mariaren amona, jakintsua eta

zoragarria. Gaur jaioa balitz, auskalo noraino helduko zen. Oraindik gogoan izaten ditu haren esanak. Amonaren ondareak jarraitzen du gaur egun ere familian. Amona zen etxeko gidaria.

9. Ganadu-tratulariarekin tirabiran

- **Erref:** URN-009/011
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txekor jaioberriaren salerosketa-tratuaren istorio zoragarria. Mariak kontatzen du nola tratantea etorri zitzaien txekorra erostera, salerosketako tirabirak, izandako elkarrizketak eta abar.

10. Tratanteek brusa irekia eta baserritarrek itxia

- **Erref:** URN-009/013
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:25:37. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Tratanteek brusa irekia erabiltzen zuten eta baserritarrek irekia. Aitona beti brusarekin ezagutu du; trajearekin pare bat aldiz bakarrik.

11. Aitonak astero bizarra labanaz egin eta abarketa pare a erosi

- **Erref:** URN-009/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Aitona astero joaten zen bizarra labanaz egitera. Eta astero abarketa pare bat ekartzen zuen, zenbaki berekoa, etxean beste bi senidek ere zenbaki bera zutelako. Pezeta bat balio zuen pareak.

Transkripzioa

-Harek eitten zun goizian, pentsa e, zortzitako mezetaa juten zan. Jaitan, e, attona. Eta Urnietan zan plazan pelukero bat Enrike esaten zitzaiona, difuntua, eta harek itten zittun alpargatak. Alpargatak. Eta denboa hartan jendia alpargatakin ibiltzen zan, ez zan oain bezela zapatakin ibiltzen. Eta

jaiero-jaiero-jaiero-jaiero jungo zan bizarra, gustatzen zitzaion zortzin behin zeakin, bizar-labanakin moztutzia. Ta, klaro, bizar-labana ibiltzeko jakin ein in bihar da. Zeatik eze harek bestela in lezake "un corte"... Bueno, ikera emateko modukua. Eta juten zan. Eta aldi berian apreta pare bat ekartzen zun, "el número veintisiete".

-Astero?

-Bai. Bai ba. Bi suhiyak, beno, semiak eta suhiyak eta beak oiña berdiña zuen. Eta beti euki bihar zan apreta pare bat ona estraiñatu gabe noara jun bihar baldin bazan.

-Jolin, ordun astero bizarra moztea jun eta alpargata pare bat erosi.

-Alpargata pare bat. Pezta bat alpargata paria.

-Harek izango zun ba lana alpargatak itten.

-Aber ba! Pentsaiozu! Ta pezta bat. Alpargata beltzak ekarriko zittun.

12. Brusa, txalekoa, gerrikoa..., gizonen jaiegunetako jantzia

- **Erref:** URN-009/015
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Garai batean brusa gizonen jaieguneko jantzia zen. Aitonak artilezko galtzerdiak erabiltzen zituen eta gainean abarkak. Oso dotore lotzen zituen. Maonezko galtzak eta oihalezko gerriko beltza. Brusarantz azpitik txalekoa eta alkandora zuria.

13. Buruan txapela, dotore jarria

- **Erref:** URN-009/016
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:30:38. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Artilezko galtzak oso onak direla dio oinentzako. Gizonezkoak buruan txapela, ondo jarria, alde batera pixka bat. Semeak ez omen du aitak bezain ongi jartzen. Trajea oso egun berezietan erabiltzen zen bakarrik.

14. Buruko painelua janztearen artea

- **Erref:** URN-009/017
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Emakumeak beltzez janzten ziren. Amona oso dotore jantzita ezagutu zuen beti. Soinekoa, berokia eta buruko painelua. Buruko painelua janzten berebiziko artea zuen. Orduan moñoa erabiltzen zuten emakumeek eta errazagoa zen haren gainean painelua ipintzea. Beltzez janzten behin berrogei bat urtetik aurrera.

15. Ileak kizkurtzeko tenazatxoak

- **Erref:** URN-009/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Emakume gazteak koloreko arropa ere erabiltzen zuen. Buruko painelurik berriz ez. Orrazkera dotoreak izaten zituzten. Ileak kizkurtzeko sutan berotutako tenazatxoak erabiltzen zituzten. Artean ez zen emakume ile-apaindegirik.

16. Erdalduna baina maistra ona

- **Erref:** URN-009/019
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Sei urterekin hasi zen eskolan. Oroitzapen ona du. Herri-eskolan, lehenago ez baitzen moja-eskolarik. Moja-eskolako kontuak. Maistra erdalduna zuten. Emakume ona. Adin ezberdinetakoak ibili arren, bakoitzari bere mailan erakusten zion. Erdaraz laster ikasi zuten. Senide gehienak ondo hitz egiten zuten erdaraz. Francisca Perez maistraren izena. Haren oso oroitzapen ona du.

17. Tinta eta lumaz idazten

- **Erref:** URN-009/020
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Matematikak gustatzen zitzaizkion batez ere Mariari. Eskola-mahaiak nolakoak ziren. Tinta eta lumaz idazten zen. Txinari buruzko erreportajea ikusi zuen duela gutxi telebistan eta horrela idazten ikusteak zer pentsatua eman zion.

18. Oianume, oso baserri handia

- **Erref:** URN-009/021
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Liburuak eskolan bertan uzten ziren. Etxera etorri eta lana egoten zen. Ganadu asko zuten. Behiez gain, txerriak ere izaten zituzten. Ordurako baserri handia zen. Oianumeko lurak noraino iristen ziren.</p>

19. Ama eta izeba Donostiara esne saltzera

- **Erref:** URN-009/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ama eta izeba joaten ziren Donostiara esne saltzera. Autobusez gerra denbora arte, trenean gero. Geltokiraino behorrek tiratutako gurdian eramaten zuten esnea. 100 bat litro egunean. Hamabi litroko marmitak izaten ziren.

20. Xoxokako erromeria eta neska-laguntzea

- **Erref:** URN-009/024
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ez du etxetik kanpo lan egin, Xoxokan bakarrik jatetxean senideei laguntzen. Xoxoka zen gazte denborako erromeria lekua. Neska-laguntzea egiten zen baina neskak ezetz esaten ere bazekien gustukoa ez bazuen mutila. Jaiero egiten zen erromeria Xoxokan. Leku askotako jendea etortzen zen, baita Andoain, Ereñozu eta abarrekoa ere. Soltean dantzatzen zen.</p>

21. Lagunak pikutara bidali pretendiente itsaskorra

- **Erref:** URN-009/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mutil bat beti atzetik segika zuten berak eta beste neska batek, eta gogoan du nola bidali zuen pikutara lagunak.

22. Gerraren oroitzapen tristea

- **Erref:** URN-009/027
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerraren oso oroitzapen tristea du. Bederatzi urte zituen bakarrik; baina, hala ere, konturatu zen berak ezagutzen zituen hainbat urnietar hil zituztela.

23. Kalean gosea gerra ostean

- **Erref:** URN-009/028
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean gose handia egon zen kalean. Trintxerpe aldetik-eta "gallega jendea" etortzen zen patata edo babarrun eske. Jende diruduna ere bai Donostiatik.

24. Errazionamenduko ogia txakurrak ere ez zuen jaten

- **Erref:** URN-009/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Errazionamenduko ogia bola gogor bat zen, gurpila bezala joaten zena. Txakurrak ere ez zuen jaten. Baserrietan taloa egiten zen asko. Garia ere ereiten zuten baina aspaldi utzi zitzaion. Artoa asko, bai orduan eta bai gerora.

25. Orduko ogia oraingoa baino hobea

- **Erref:** URN-009/030
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Ogia nola egiten duen azaltzen du. Oso ogi ona egiten omen zen. Naturala. Oraingoaz ez du iritzi onik. Lehengo ogia hobea omen zen.</p>

26. Astoaren gainean errotara

- **Erref:** URN-009/031
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 00:59:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gariaren prozesua azaltzen du labur. Ebaki, pilak egin, motordun makina batez jo, errotara eraman... Trankaetxe zuen errotak izena. Errotaberri izeneko beste bat ere bazen Hernaniko mugan. Astoaren gainean zorroa jarri eta zorroaren gainean neska edo mutikoa, eta errotara. Astoari ez zaio ahazten behin egindako bidea.</p>

27. "Abailarri", Buruntzatik Aranora bota nahi izan zuten harria

- **Erref:** URN-009/035
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:03:25. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Abailarri Urnietako partean dagoen zutarria da. Aitonak kontaktzen zien Buruntza menditik Aranora bota nahi izan zutela harri hori, baina jaurtitzailak irrist egin zuenez, Aranon beharrean, Urnietako mendian erori zela. Ipuina omen da; zenbait txantxa egiten du.

28. "Zilegiak", herri-lur bereziak

- **Erref:** URN-009/036
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:04:40. **Bukatu:** 01:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Herriko "zilegia"ren gorabeherak kontaktzen ditu. Pinu sartu zuten herri-lur hori baina izozteak hondatu egin zuen hainbat aldiz. Entzunda duenez, antzina bi ahizpek herriko gizasemeentzat utzi zuten lur hori. Senarrak bazuen partea. Egurra, inostorra, garoa... jasotzen zen gehienbat. Onddi mendi alde horretan dago Zilegia. Gero saldu egin zen eta kanpoko jendearen eskutan dago orain.

29. Saroiak

- **Erref:** URN-009/037
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:06:48. **Bukatu:** 01:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>"Sarobeak" (saroiak) itxitura biribil batzuk direla dio, zuhaitz mintegi gisa erabiltzen zirenak. Beraiek ere bazuten saroiak; zilegiaren aldamenean zegoen.</p>

Transkripzioa

-Ta sarobiak zer dira?

-Sarobiak dia itxutura bat bezela, ezta, eta han itten da landaria, arbolak.

-Itxitura hori zerezkua da?

-Itxutura normala.

-Alanbre sariakin edo?

-Ez, ez. Alanbre sareik ez zan jartzen garai batian.

-Zerekin?

-Bea, hola terreno bat bezela izaten zan, ezta, eta han itten zan landaria hazia bota, ta jaiotzen zanian mendin aldatzeko arbolak izaten zien. Mendiako arbolak.

-Hoik zeñek gobernatzen zittun?

-Hoi terreno jabiak.

-Ordun baserri bakoitzak euki zezakeen...

-Bai, euki zezakeen lasai. Oianumek bazun sarobia hor.

-Nun zun?

-Ba zillegien kontra.

-Eta zer izaten da, radio haundikua? Metro asko?

-Segun zein nolakua jartzen dun. Hoi baserritarren erabakin juten da.

-Zuena?

-Bai, dezentia zan. Ni sekula behiñ izandu nitzan baiño dexentia zan.

-Gauza kuriosua da.

-Oain'e itten dia sarobiak tokin-tokin. Ikuste dit behin edo behin: "Hara!, beira ze sarobia don!; beira ze landaria don!" Nei atentziyua, nei Oñati aldian eta ikusi izandu dittut.

30. Marizuloko koba

- **Erref:** URN-009/038
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:08:28. **Bukatu:** 01:10:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Marizulo baserriaren ondoan dago Marizulo leize-zuloa. Ez omen da hainbeste denbora horren berri jakin zela. Laborde andoindarra izan omen zen bilatzaileetariko bat.

31. Gezurretako sorginak eta hustutako kalabazak

- **Erref:** URN-009/039
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:10:13. **Bukatu:** 01:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Etenetako triku-harriak noizkoak diren eta horrelakorik ez daki. Sorginei buruzko ipuin barregarri bat kontatzen du. Beste denbora baten, kalabazak hustu, aurpegia irudikatzeko zuloak egin, kandelak jarri eta horrela dibertitzen ziren.

32. "Garai batean etxean zaharrak errespetatu egiten ziren, eta gaur ez"

- **Erref:** URN-009/041
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:13:05. **Bukatu:** 01:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Orduan orain baino sanoago bizi zen jendea. Asko laguntzen zitzaion elkarri. Indibidualismo ikaragarria sortu da egun, eta hori triste da. Etorriko omen da zaharretxeei eutsi ezin zaien eguna. "Garai batean etxean zaharrak errespetatu egiten ziren, eta gaur ez".

33. Mutilzahar petral baten kamioiari potoak erantsi

- **Erref:** URN-009/043
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:15:54. **Bukatu:** 01:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Oso ondo pasatzen zuten josten ikastera joaten zirenean. Behin kamioilari mutilzahar zikin bati potoak erantsi zizkioten kamioian eta nolako barreak!

34. Kaxeta jostundegia, jostundegi ona

- **Erref:** URN-009/044
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:19:10. **Bukatu:** 01:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Kaxeta izeneko etxean zegoen jostundegia. Urtebete egin zuen ikasten. Jantzi asko egiten zen, baita Donostiarako ere. Jostundegi ona zen.

35. Ia dendarik ez Urnietan

- **Erref:** URN-009/045
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:20:42. **Bukatu:** 01:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Urnietan ez zegoen ia komertziorik: okindegi bat eta denetarik egoten zen beste saltoki bat. Gero. bi barberia. Emakumeen ile-apaindegiak gerra pasatu eta oso gerora jarri ziren.

36. Gobada (lixiba) nola egiten zen

- **Erref:** URN-009/046
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:21:28. **Bukatu:** 01:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Harrian garbitzen zuten arropa. Chimbo eta Lagarto ziren orduko xaboiak. Lixiba ere ezagutu zuen. Lixiba-ontzia edo tina nolakoa zen deskribatu ondoren, lixiba nola egiten zen kontatzen du. Kolore eta usain zoragarria izaten zuen horrela garbitutako arropak.</p>

37. Buruan nahiago karga eskuetan baino

- **Erref:** URN-009/047
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:24:58. **Bukatu:** 01:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Gobara-lekua errekondoan zegoen. Barrinoa buruan hartuta eramaten zuten arropa. Eskuetan baino erraztasun handiagoa izan du buruan eramaten. "Burutia" esaten zitzaion bigungarri gisa erabiltzen zenari.

38. Gorde-gordeka sabaian

- **Erref:** URN-009/049
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:28:30. **Bukatu:** 01:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gorde-gordeka sabaian nola ibiltzen ziren kontatzen du. Sokasaltoan ere ibiltzen ziren. Eta txingoka errepidean barrena. Mutilak futboleak ibiltzen ziren kaminoan.

39. Berorika gurasoei eta osaba-izebei

- **Erref:** URN-009/050
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 01:30:55. **Bukatu:** 01:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mariak etxean adinekoei (guraso, aitona-amona, osaba-izeba) berorika egiten ezagutu du beti, eta senarrak ere bai. Berari ere semeak eta erraina berorika egiten diote, eta beste seme-alabek ere bai, txikienak izan ezik. Hark zuka. Berak seme-alabei zuka egin die, eta berari ere gurasoek hala egiten zioten. Anai-arrebekin ere zuka egin izan du. Lagun artean ere gutxi egin du hika. Denbora hartan hika egitea errespetu faltatzat hartzen zen.</p>

40. Gazteek errespetu falta ikaragarria

- **Erref:** URN-009/051
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:35:50. **Bukatu:** 01:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gazteek ikasketa handiak dituzte baina bizi esperientziarik ez. Eta errespetu falta ikaragarria, eta gero eta handiagoa, gainera. Pertsonak beren ekintzetatik ezagutzen omen dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com